



## OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Sanidad  
Dirección de Salud Pública y  
Adicciones

## Alerta, Espainiako oliba-olioarekin egindako *zezina* xerretan *Listeria monocytogenes* agertu delako

### Arriskua: *Listeria monocytogenes*

Alerta: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Informazioa Truke Azkarreko Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, Kataluniako osasun-agintariek helarazaitako alerta-jakinarazpen baten berri izan du, *Listeria monocytogenes* agertzeari buruzkoa, oliba-olio xerretan ketutako *zezina* produktuan.

Hemen jasotzen den informazioa enpresaren autokontrolaren ondoriozkoa da. Legedia betez, enpresak agintari eskudunei jakinarazi die intzidentzia, herritarren esku jarri ez ditzaten seguruak ez diren elikagaiak.

Enpresa banatzaileak ohar bat argitaratu du produktu honen erretiratzeari buruz, eta esteka honetan kontsulta daiteke:

[Headline \(lidl.es\)](https://www.lidl.es)

Aipatutako produktuaren datuak hauek dira:

- Produktuaren izena: *zezina* oliba-olioarekin
- Markaren izena: Friber, S.A.
- *Zezina* produktuaren itxura, ontziratutako xerretan
- Iraungitze-data: 2023/07/11
- Unitatearen pisua: 100 g
- Tenperatura: hoztua

Eskura dauden irudiak erantsi dira.



Eskura dugun informazioaren arabera, hasierako banaketa Aragoi, Kantabria, Nafarroa, Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoko LIDL kate-denda batzuetan egin da, baina ezin da baztertu beste autonomia-erkidego batzuetara birbanaketak egin izana.

Informazio hori autonomia-erkidegoetako agintari eskudunei helarazi zaie, Informazioa Truke Azkarreko Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, eragindako produktuak merkaturatze-kanaletatik kendu direla egiaztatzeko.

Etxean alerta horren eraginpean dauden produktuak dituzten pertsonei ez kontsumitzea gomendatzen zaie.

Ukitutako loteetako produkturen bat kontsumitu badu eta listeriosiarekin bateragarria den sintomatologia badu (gorakoak, beherakoa edo sukarra), osasun-zentro batera joatea gomendatzen da.

Haurdun egonez gero, gomendagarria da [Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Haurdunaldiaren Gidako](#) elikadura-atala kontsultatzea, emakume haurdunentzat garrantzitsuak diren elikadura-higieneari buruzko jardunbideei dagokienez, baita arrisku biologiko jakin batzuekin lotuta egoteagatik haurdunaldian saihestu behar diren elikagaien zerrenda ere (horien artean *Listeria monocytogenes* nabarmentzen da).

[Beste produktu batzuekin kutsadura gurutzatua saihesteko higiene-neurriak](#) muturreraino eramatearen garrantzia gogorarazten da.

Listeriosiari buruzko informazio gehiago [esteka honetan](#) .